

**IRUÑERRIKO MANKOMUNITATEA**  
**Iruñerriko hiri garraioaren zerbitzu publikoa arautzen duen ordenantzaren**  
**aldaketa. Hasiera batean onestea**

Iruñerriko Mankomunitatearen Batzar Nagusiak, 2013ko ekainaren 27an egindako bilkuran, hasiera batean onetsi zuen Iruñerriko hiri garraioaren zerbitzu publikoa arautzen duen ordenantzako artikulua hauek aldatzea: 3, 5, 6.f), 7, 8, 11, 12, 13.d), e) eta h), 14, 15, 16, 18, 21, 22 eta 30.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325.1 artikuluan xedatutakoarekin bat, onetsitako aldaketek jendaurrean egon beharko dute hogeita hamar egun baliodunean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik kontatzen hasita, interesdunek espedientea aztertu ahal izan dezaten eta erreklamazioak, kekek edo oharrak aurkezteko aukera izan dezaten.

Jendaurrean egoteko aldia igarota alegaziorik aurkezten ez bada, ordenantza behin betiko onetsita geldituko da eta bere testu osoa Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Iruñean, 2013ko ekainaren 28an. Lehendakaria, José Muñoz Arias.